

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/010

Izenburua: NEKAZARITZAKO PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Datak: 1939-1996

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 215 instalazio unitate

Sortzailea: NEKAZARITZAKO PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Erakundearen historia:

Nekazaritza, Industria eta Merkataritza Ministerioa Niceto Alcalá Zamora Errepublikako presidentearen dekretu bidez sortu zen 1931ko abenduaren 16an, eta barne hartu zituen Nekazaritza, Industria eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak —Ekonomia Nazionalako Ministerioan zeudenak— eta Meatze, Mendi eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiak —Sustapen Ministerioan zeudenak—.

Bi urte geroago, 1933ko ekainean, Manuel Azañaren lehendakaritzapean, bitan banatu zen departamentu hori: alde batetik Nekazaritza Ministerioa sortu zen, eta, bestetik, Industria eta Merkataritza Ministerioa. Lehenengo aldia zen Ministerio baten egiteko bakarra nekazaritza arloa kudeatzea zena. Banaketa behin betikoa izan zen, salbu eta 1935eko irailaren 25etik 1936ko otsailaren 19ra bitartean.

1938ko apirilaren 6ko Dekretuak Nekazaritza Ministerioa berrantolatu zuen, eta, horrela, bat zetorren urte bereko urtarrilaren 30eko Legean jasotako Estatuko Administrazio Orokorraren antolaketa berriarekin. Arlo hauetako eginkizunak izan zituen: nekazaritza, abeltzaintza, mendiak, ehiza eta arrantza eta lurraren erreforma ekonomiko eta soziala.

Ministerio horren egitura zenbait aldiz aldatu zen hurrengo urteetan (3293/1962 Dekretua, abenduaren 7koa, Nekazaritza Ministerioa berrantolatzeari buruzkoa, eta 161/1968 Dekretua, otsailaren 1ekoa, Nekazaritza Ministerioa berrantolatzeari buruzkoa).

Gastu publikoa murrizteko Estatuko Administrazio Zibila berrantolatzeari buruzko 2764/1967 Dekretuaren bidez, Nekazaritza Ministerioaren probintzia ordezkariak sortu ziren. Dekretu horretatik aitzina, departamentu hauek sartu ziren ordezkarietara: Nekazaritza Buruzagitza, Baso Barrutiak, Abeltzaintzako Probintzia Zerbitzuak eta Nekazaritzako Estatistika eta Koiunturazko Informazioaren Atala.

Nekazaritza Ministerioa berrantolatzeari buruzko otsailaren 1eko 161/1968 Dekretuaren bidez, probintzia ordezkariak sortu ziren, berariaz. Halaber, dekretuak zioen erakunde autonomoen lurralde zerbitzuak zegokien lurralde ordezkarietan sartuko zirela, hargatik haien autonomia funtzionala ezertan eragotzi gabe. Nekazaritza Ministerioaren erregelamendu organikoa onartzen duen azaroaren 28ko 3108/1968 Dekretuaren bidez arautu eta antolatu ziren.

2684/1971 Dekretuaren bidez, Nekazaritza Ministerioaren egitura organikoa aldatu zen; ondorioz, probintzia ordezkariak berrantolatu ziren eta haien eginkizunak bateratu.

Abenduaren 18ko 2654/1985 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatu ziren Estatuko Administrazioaren nekazaritza, abeltzaintza eta mendi arloetako eginkizunak eta zerbitzuak.

Abuztuaren 1eko 1320/1997 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatu ziren Estatuko Administrazioaren nekazaritzako elikagaien iruzurren aurka defendatzeko eta kalitatearen arloko eginkizunak eta zerbitzuak.

Garai bateko Ordezkaritza Probintzietik etorritako dokumentazio ugari dago Nafarroako Artxibo Garaikidean. Dena den, funtztat hartu da haren mendeko Zerbitzu Nazional bakoitza. Ordezkaritzaren mende jarri da hauei buruzko dokumentazioa: nekazaritzako elikagaien industriren kontrola, hazien ekoizpena eta merkaturatzea, ikuskaritza eta Nekazaritzako Kontabilitate Sarea. Nekazaritza Industrien Erregistroari dagozkionak dira dokumentu nagusiak:

1938ko abuztuaren 20ko Dekretuak —Industria berriak sortzeko aitzineko baimenaren beharra arautzen zuena— ezartzen zuenez, Industria eta Merkataritza Ministerioak aitzinetik eta berariaz baimena eman behar zuen organikoki haren mende zeuden eraikuntza berriko industriak ezartzeko, bai eta lehendik zeudenak handitzeko edo eraldatzeko ere. Zegokion espedienteak Probintzia Ordezkaritzan izapidetzen zen. Xedapen hori osatzeko, 1938ko azaroaren 17ko Agindua zegoen, industriak irekitzeari edo aldatzeari buruzkoa. Eskakizun horiek, gerra zibileko egoera zela eta, behin-behinean emandakoak ziren. Hala ere, berriz jaso ziren fabrikak eta industria berriak ezartzeko edo lekualdatzeko Arauetan, 1939ko irailaren 8ko Dekretuaren bidez onartutakoetan —nahiz eta izapide batzuk sinplifikatu eta laburtu—, bai eta 1939ko irailaren 12ko Aginduan ere, industria berriak instalatzeari eta fabrikak eta industriak handitzeari buruzkoan. Azken horren arabera, 50.000 pezetatik beheitiko hasierako kapitala eta 25 langile baino gutxiago zituzten industriren kasuan, zegokien Industria Ordezkaritzan aurkezteko betebeharra zuten, beharrezkoak ziren datuak Errolda Erregistroan eta Industria Ikuskaritzan inskribatzeko. Horiek ikusita, eskatutako industria inskribatuko zuen ingeniari buruak. Gainerako industrien berariazko baimena behar zuten, eta BOEn argitaratzea. Nekazaritza Ministerioak nekazaritza, abeltzaintza eta baso industriren gainean dituen eskumenak 1952. urtean ezarri ziren, eta urte horretan bertan eman ziren industria horiek antolatzeke eta defendatzeko arauak (1952ko uztailaren 15eko Agindua, 1952ko maiatzaren 1eko Lege Dekretua betez, nekazaritza, abeltzaintza eta baso industriak antolatzeke eta defendatzeko arauak eman zituenak). Probintzia ordezkaritzak bete zuen eginkizun hori 1985ean Nafarroako Gobernuari eskualdatu zitzaion arte.

Funtsaren antolamendua:

010.01 NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIEN KONTROLA

010.01.01 Nekazaritzako Industrien Erregistroko espedienteak

010.02 LANDARE EKOIZPENA

10.02.01 Haziak eta mintegiko landareen ekoizleak eta merkaturatzaileak kontrolatzea eta ziurtatzea

010.03 NEKAZARITZA INFORMAZIOA

010.03.01 Nekazaritzako Kontabilitate Sarea

010.04 BASO KUDEAKETA

010.04.01 Jabetza pribatuko mendiei dirulaguntzak

Sarrera baldintzak:

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epea ezartzen ez duen bitartean, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.